

ORDENANTZA FISKALA, EXEKUZIO AGINDUEN, EXEKUZIO SUBSIDIARIOEN ETA PARTIKULARRENDAKO SOROSPENEN TASAK ARAUTZEN DITUENA

OINARRIA

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenengo tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

ZERGAPEKO EGINTZA

2. artikulua.

1. Ondoko jarduerak egin eta ondoko zerbitzuak ematea da zergapeko egintza:

a) Obrak, eraispenak eta konponketak egiteko exekuzio aginduak eta hirigintzako lizentzia edo ondorengo kontrola behar duten gainerako egintzak, baldin eta haietara beharturik den subjektuaz beste norbaitek egiten ahal baditu.

b) Exekuzio subsidiarioa, exekuzio agindu bat ez betetzeagatik, aurreko ataleko kasuetan.

c) Exekuzio subsidiarioa, ordenantzetan edo udal erabakietan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik, xede horretarako agindu edo ohartarazpen bati muzin egin bazaio.

d) Albienteen edo brigadaren zerbitzu bereziak, partikularrek eraginda.

2. Interesdunek berek eragiten dituzten zerbitzuek, eta bereziki beren mesederako direnek, baita ondasunak berreskuratzeko presagatik edo ordena publikoa, segurtasuna, osasungarritasuna edo higiena direla medio derrigor eman beharrekoak direnek ere, ordainarazpena sorraraztea ekarriko dute, nahiz eta zerbitzua ez izan interesdunek eskatua.

3. artikulua. Udalak zilegi izanen du, nolnahi ere, enpresa pribatu bat kontratatzea ordenantza honek aipatzen dituen zerbitzuak egiteko. Larrialdiko kasuetan, eta kontratazio arautegiak agintzen duenaren arabera, udal zerbitzuek zilegi izanen dute zuzenean kontratatzea enpresen, teknikari eskudunen eta beste bitarteko partikular batzuen zerbitzuak, eta gero Alkatetzari edo Udaltzari horren berri ematea.

TASAREN SORTZAPENA

4. artikulua. Tasa kasuaren arabera sorraraziko da: exekuzioa agintzen denean, exekuzio subsidiarioaren espedientea hasteko ebatzen denean, edo, alde aurreko ebatzen ez badago, exekuzioaren zerbitzua edo laguntza ematen denean.

SUBJEKTU PASIBOA

5. artikulua. Tasa ordaintzera beharturik daude pertsona fisiko zein juridikoak eta, nortasun juridikorik ez izanik ere, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten entitateak, haien kontra exekuzio agindua baldin badago edo haiek eragin badute exekuzioa edo emandako zerbitzua edo haien onura edo eragina hartzen badute.

ZERGA-OINARRIA

6. artikulua. Honako hauek dira ordainarazpen honen zerga-oinarri:

a) Exekuzio aginduak: eginkizun dagoen obrari egin behar zaion baloraziotik heldu dena izanen da.

b) Exekuzio subsidiarioa eta partikularrendako sorospenak: exekuzioaren edo emandako zerbitzuaren guztizko kostua izanen da.

KUDEAKETA ARAUAK

7. artikulua.

1. Exekuzio aginduen tasa likidaziorako araubidean eskatuko da, hori eskatutakoari jarraikiz egiten denean. Obra bukatuta obra amaierako ziurtagiria aurkeztu beharko da eta egindako obren benetako kostuaren aitorpena, zerga administrazioak behin betiko likidazioa egin dezan, hori guztia hirigintzako lizentzien tasak arautu diren moduan.

2. Obra amaieraren eta guztizko kostuaren aitorpena aurkeztu beharra ez betetzeak tributu arloko arau-haustea ekarriko du eta zehatu daiteke, Ordenantza Fiskal Orokorraren IV. kapituluan eta aplikagarria den gainontzeko arautegian xedatuari jarraikiz.

3. Lizentzia behar duten exekuzio subsidiarioen kasuetan, tasa behin-behinekoz likidatu eta exekuzioaren aurretik egiten ahalko da, behin betiko likidazioa izateko.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

8. artikulua. Tasa honen aplikaziotik ateratzen den likidazioaren edo autolikidazioaren zenbatekoa goiti-beheiti, subjektu pasiboak erantzun beharko du irekitzen ahal den espediente zehatzaitetik sor daitezkeen zehapenen aurrean, hori guztia Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakoa betez.

Azken xedapena.–Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera behin betiko onetsitakoan, ordenantza fiskal honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko guztiak izanen ditu, Nafarroako Aldizkari Ofizialean testua oso-osorik argitara emandakoan.

TARIFEN ERANSKINA

I. epigrafea.–Exekuzio aginduak:

Tasa kalkulatzeko, zerga-oinarriari aplikatuko zaio lizentziak emateko eta hirigintza arloko jarduera administratiboak kontrolatzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalean kasu bakoitzerako ezarritakoa.

Obra gauzatzeko aurrekontuaren %0,22, eta gutxienez 85,00 euro.

II. epigrafea.– Exekuzio subsidiarioak:

Tasa kalkulatzeko, zerga-oinarriari %132,00 aplikatuko zaio.

III. epigrafea.–Albienteen edo brigadaren zerbitzu bereziak, partikularrek eraginda: ordua edo zatikia:

–Esku hartzen duen udaltzain edo brigadako langile bakoitzagatik 31,30 euro.

–Erabiliko den udal kotxe bakoitzarengatik 4 euro.

ORDENANTZA FISKALA, EXEKUZIO AGINDUEN, EXEKUZIO SUBSIDIARIOEN ETA PARTIKULARRENDAKO SOROSPENEN TASAK ARAUTZEN DITUENA

OINARRIA

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenengo tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

ZERGAPEKO EGINTZA

2. artikulua.

1. Ondoko jarduerak egin eta ondoko zerbitzuak ematea da zergapeko egintza:

a) Obrak, eraispenak eta konponketak egiteko exekuzio aginduak eta hirigintzako lizentzia edo ondorengo kontrola behar duten gainerako egintzak, baldin eta haietara beharturik den subjektuaz beste norbaitek egiten ahal baditu.

b) Exekuzio subsidiarioa, exekuzio agindu bat ez betetzeagatik, aurreko ataleko kasuetan.

c) Exekuzio subsidiarioa, ordenantzetan edo udal erabakietan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik, xede horretarako agindu edo ohartarazpen bati muzin egin bazaio.

d) Albienteen edo brigadaren zerbitzu bereziak, partikularrek eraginda.

2. Interesdunek berek eragiten dituzten zerbitzuek, eta bereziki beren mesederako direnek, baita ondasunak berreskuratzeko presagatik edo ordena publikoa, segurtasuna, osasungarritasuna edo higiena direla medio derrigor eman beharrekoak direnek ere, ordainarazpena sorraraztea ekarriko dute, nahiz eta zerbitzua ez izan interesdunek eskatua.

3. artikulua. Udalak zilegi izanen du, nolnahi ere, enpresa pribatu bat kontratatzea ordenantza honek aipatzen dituen zerbitzuak egiteko. Larrialdiko kasuetan, eta kontratazio arautegiak agintzen duenaren arabera, udal zerbitzuek zilegi izanen dute zuzenean kontratatzea enpresen, teknikari eskudunen eta beste bitarteko partikular batzuen zerbitzuak, eta gero Alkatetzari edo Udaltzari horren berri ematea.

TASAREN SORTZAPENA

4. artikulua. Tasa kasuaren arabera sorraraziko da: exekuzioa agintzen denean, exekuzio subsidiarioaren espedientea hasteko ebatzen denean, edo, alde aurreko ebatzenik ez badago, exekuzioaren zerbitzua edo laguntza ematen denean.

SUBJEKTU PASIBOA

5. artikulua. Tasa ordaintzera beharturik daude pertsona fisiko zein juridikoak eta, nortasun juridikorik ez izanik ere, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten entitateak, haien kontra exekuzio agindua baldin badago edo haiek eragin badute exekuzioa edo emandako zerbitzua edo haien onura edo eragina hartzen badute.

ZERGA-OINARRIA

6. artikulua. Honako hauek dira ordainarazpen honen zerga-oinarri:

a) Exekuzio aginduak: eginkizun dagoen obrari egin behar zaion baloraziotik heldu dena izanen da.

b) Exekuzio subsidiarioa eta partikularrendako sorospenak: exekuzioaren edo emandako zerbitzuaren guztizko kostua izanen da.

KUDEAKETA ARAUAK

7. artikulua.

1. Exekuzio aginduen tasa likidaziorako araubidean eskatuko da, hori eskatutakoari jarraikiz egiten denean. Obra bukatuta obra amaierako ziurtagiria aurkeztu beharko da eta egindako obren benetako kostuaren aitortpena, zerga administrazioak behin betiko likidazioa egin dezan, hori guztia hirigintzako lizentzien tasak arautu diren moduan.

2. Obra amaieraren eta guztizko kostuaren aitortpena aurkeztu beharra ez betetzeak tributu arloko arau-haustea ekarriko du eta zehatu daiteke, Ordenantza Fiskal Orokorraren IV. kapituluan eta aplikagarria den gainontzeko arautegian xedatuari jarraikiz.

3. Lizentzia behar duten exekuzio subsidiarioen kasuetan, tasa behin-behinekoz likidatu eta exekuzioaren aurretik egiten ahalko da, behin betiko likidazioa izateko.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

8. artikulua. Tasa honen aplikaziotik ateratzen den likidazioaren edo autolikidazioaren zenbatekoa goiti-beheiti, subjektu pasiboak erantzun beharko du irekitzen ahal den espediente zehatzaitetik sor daitezkeen zehapenen aurrean, hori guztia Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakoa betez.

Azken xedapena.–Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera behin betiko onetsitakoan, ordenantza fiskal honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko guztiak izanen ditu, Nafarroako Aldizkari Ofizialean testua oso-osorik argitara emandakoan.

TARIFEN ERANSKINA

I. epigrafea.–Exekuzio aginduak:

Tasa kalkulatzeko, zerga-oinarriari aplikatuko zaio lizentziak emateko eta hirigintza arloko jarduera administratiboak kontrolatzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalean kasu bakoitzerako ezarritakoa.

Obra gauzatzeko aurrekontuaren %0,22, eta gutxienez 85,00 euro.

II. epigrafea.– Exekuzio subsidiarioak:

Tasa kalkulatzeko, zerga-oinarriari %132,00 aplikatuko zaio.

III. epigrafea.–Albienteen edo brigadaren zerbitzu bereziak, partikularrek eraginda: ordua edo zatikia:

–Esku hartzen duen udaltzain edo brigadako langile bakoitzagatik 31,30 euro.

–Erabiliko den udal kotxe bakoitzarengatik 4 euro.